

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

- Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoak izango ditugu hainbat gauza. Hasteko baliabide fisikoak behar ditugu, esate baterako, Bicinatura SI enpresak salduko dizkigun piezak, Elecktria enpresak hornituko dizkigun elektrizitate alorrerako produktuak, gure tailerra, gure makineria, gure tresneria etb.

Bigarrenik baliabide intelektualak eta giza baliabideak beharko ditugu hau da: adituak txirrinda eta transformadorea sortzeko, webgunea eta marketing alorra eramateko ezagutzak, dirua eta kontabilitatea administratzeko ezagutzak, salmentarako eta antolamendurako ezagutzak etb.

Azkenik finantza baliabideak beharko ditugu baita ere, hau da: gure aurrezkiak hasierako kapitala jartzeko, bazkideen inbertsioak, iragarkiak jarri nahi dituzten enpresen diru laguntzak etb.